


# Umore Azoka

MAIATZAK 19 / 20 / 21 / 22

MAYO 2016

LEIOAKO KALEKO ARTISTEN AZOKA  
FERIA DE ARTISTAS CALLEJEROS DE LEIOA



## Zertan datza “2016ko Umore Azokaren establezimendu laguna” ekimena?

Bi modalitate desberdin daude parte har dezazuen (bietako bat ala biak):

- A. **4 euroko Umore Azoka txartela:** zuen establezimenduan “Umore Azokako diruarekin” ordaintzen uztean datza. 4 euroko txartelak dira, edozein produktu erosi ahal izateko, menuak barne. Txartel hauek antolakuntzak zenbakitzen, zulatzen eta zigilatzen ditu.



Horrela, ostalaritza eskaintza zabaltzen dugu eta aukera ematen diegu Umore Azokako partaideei txartelak nahi duten lekuan eta moduan gastatzeko (gosariak, bazkariak edo afariko menuak, pintxoak, edariak...).

- B. **Umore Azokako menu txartela:** zuen establezimenduan “Umore Azokako menu txartelekin” ordaintzen uztean datza. Txartel hauek antolakuntzak zenbakitzen, zulatzen eta zigilatzen ditu eta menuan bakarrik gasta daitezke, bete beharreko baldintza hauekin:



1. Asteazkenetik igandera (bazkariak eta afariak).
2. Menuaren prezioa: 12€ (BEZ barne). Balio hori da txartelaren moneta-balioa.
3. Gutxienez, menuak 3 lehen plater, 3 bigarren, postrea eta kafea izan behar ditu. Ezinbestekoa da lehen plateretariko bat eta bigarrenetariko beste bat begetarianoa izatea.
4. Konpromiso hauek: kalitatea, zerbitzu azkarra eta ordutegi malgutasuna, aintzat harturik jende gehien hurbil daitekeen ordutegia 13:00etatik 16:00etara eta 21:00etatik 00:00etara izan daitezkeela, eta gainera, tarteka hurbil daitezkeela, aurreikuspenak egitea zaila izanik.

## Nola artikulatzen da Umore Azoka eta interesatuta dauden Leioako ostalaritza establezimenduen arteko kolaborazioa?


1. **Martxoaren 21an, 18:00etan, informazio batzarra** egingo da Kultur Leioan. Bertan, zuen zalantza guztiak argitu ahal izango dituzue.
2. Ekimenean parte hartu nahi baldin baduzu, gurekin kontaktuan jarri 946072578 telefonoaren bidez edo Kulturako bulegoetara etorri (Kultur Leioa, 4. solairua). **Informazio batzarrean bertan izena eman dezakezu**, edo beste uneren batean, baina betiere, **apirilak 8 baino lehen**. Horretarako, bete orri honen bestaldean dagoen inprimakia, zure ostalaritza eskaintzari buruzko xehetasunak eman. Inprimakian, alderdi biok hartzen ditugun konpromisoak agertzen dira, baita hirugarrenen orria ere, zure banku-datuak emateko. Azken hori, lehenago programan parte hartu ez baduzu bakarrik bete.
3. Establezimendu lagun guztiak Umore Azokako profesional guztiei banatuko zaien zerrenda batean agertuko dira.
4. Zure establezimendua Umore Azokako lagun bezala identifikatzeko, **seinale** bat emango dizugu lokaleko leku ikusgarri baten jar dezazun.
5. Umore Azoka amaitu eta bost eguneko gehienezko epean, hau da, **maiatzaren 27a baino lehen**, zure establezimenduan ordaintzeko erabili dituzten txartelak entregatu beharko dituzu Kulturako bulegoetan (Umore Azokaren diru txartelak eta menu-txartelak).
6. Behin txartelak egiaztatuta, jaso-agiri bat emango dizugu, eta egoki den zenbatekoa jasotzen duen faktura aurkeztu ondoren, banku-transferentzia bidez ordainduko dizugu.

# Umore Azoka

MAIATZAK 19 / 20 / 21 / 22

MAYO 2016

LEIOAKO KALEKO ARTISTEN AZOKA  
FERIA DE ARTISTAS CALLEJEROS DE LEIOA



www.umoreazoka.org

## “2016ko Umore Azokaren establezimendu laguna” izateko inskripzio fitxa

Harremanetarako datuak:

Establezimenduaren izena:	
IFK:	
Arduradunaren izen-abizenak:	
Arduradunaren kontakturako tel.:	
E-mail:	

Umore Azokan akreditatuta dauden profesionali emango zaien zerrendarako datuak:

Honetan parte hartu nahi dut (markatu):	A. 4 €ko Umore Azoka txartela <input type="checkbox"/>	B. Umore Azokako Menu Txartela <input type="checkbox"/>
Izendapena:		
Establezimendu mota:		
Helbidea/Kokapena:		
Telefonoa:		
Espezialitatea:		

- Zure ostalaritza eskaintza deskribatu (menurik badago, zer plater dagoen):

(Karta eta interesgarria izan daitekeen dokumentazioa erantsi)

- Menuetarako establezimenduaren edukiera, baimendutakoa: \_\_\_\_\_ pertsona.

Establezimenduak hartutako konpromisoak:

- Eskatutako dokumentazioa betetzea.
- “Umore Azokaren establezimendu laguna” izateari dagokion seinalea kokatzea lokalean bistara dagoen lekuan.
- Kalitatezko zerbitzu eraginkorra bermatzea. Antolakuntzari edozein arazo jakinaraziz gero, establezimenduarekin harremanetan jarriko gara soluzioa emate aldera.
- Behin Umore Azoka amaituta, bost eguneko gehieneko epean (maiatzaren 27a baino lehen) “Umore Azokaren diruari” dagozkion txartelak entregatzea, establezimenduan ordain gisa jasotakoak (4 euroko txartelak eta menu txartelak).
- Umore Azokari lagundu inkesta bat betetzen, datorren edizioari begira, ekimen hau hobetzeko helburuarekin.

Umore Azokak hartutako konpromisoak:

- Zure establezimenduaren datuak sartzeari Umore Azokan parte hartuko duten profesionali, Leioara heldu bezain laster, emango zaien zerrendan.
- Seinalea bat ematea zure establezimendua “lagun” bezala identifikatu ahal izateko.
- Bezeroak bermatzea “Umore Azokako menu-txartel” modalitatean parte hartzen duten establezimendu guztietan.
- Behin Kulturako bulegoetan jasota zure establezimenduan ordain gisa erabili diren txartelak (4 euroko txartelak eta menu txartelak), jaso-agiri bat ematea, eta egoki den zenbatekoa jasotzen duen faktura aurkeztu ondoren (BEZ barne), banku-transferentzia bidez ordaintzea 20 eguneko gehieneko epean (faktura Leioako Udaleko kontabilitatea sailean erregistratzen den egunetik zenbatzen hasita).

Data: